**BASQUETOUR-
TURISMOAREN EUSKAL AGENTZIA, SA.**

IRAGARKIA, Euskadiko eskaintza sustatzeko 2008an Madrilen, Bartzelonan eta Santiagoko Compostelan egingo diren ekintzak prozedura irekiaren bidez kontratatzeko lehiaketari dagokiona. 5164

# Xedapen Orokorrak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### 1394

35/2008 DEKRETUA, martxoaren 4koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Batxilergo eta erdimailako eta goi-mailako Lanbide Heziketako herri-ikastetxeetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko prozedura arautzen duena.

Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, hezkuntzari buruzkoak, oinarrizko zenbait arau ezarri ditu, ikasleak herri-ikastetxeetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan onartzeko bete behar direnak. Hezkuntza-administrazioei dagokie ikasleak onartzeko prozedura eta onarpen-irizpideak arautzea, eta, araupen-lan horretan, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak ezarritako lehentasunezko irizpideak betetzea.

Halaber, otsailaren 19ko 1/1993 Legeak, Euskal Eskola Publikoari buruzkoak, ikastetxeetan eskolatzeko eskubidea bermatzen du 13. artikuluan, zehaztutako planifikazioaren markoaren baitan. Lege horrek berak adierazten du arauz ezarriko dela ikasleak onartzeko modua, ikastetxeetan nahikoa eskola-plazarik ez badago. Araupen hori, betiere, diskriminaziorik gabekoa izan behar du, ikasleak onartzean.

Dekretu honek bermatu egiten du ikasleak ikastetxeetan onartuak izango direla, adinaren, eta, hala behar denean, sarbiderako eskatutako baldintza akademikoen mugen baitan. Eskola-plaza nahikorik ez dagoenerako soilik garatzen ditu dekretu honek maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa, hezkuntzari buruzkoa, eta otsailaren 19ko 1/1993 Legea, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa, eta, zehazki, azken lege horren 13. artikulua. Arauzko garapen horren xedea da aukera-berdintasuna bermatzea, diru publikoz finantzatutako hezkuntzarako sarbidean.

**BASQUETOUR-
AGENCIA VASCA DE TURISMO, S.A.**

ANUNCIO para la contratación por el procedimiento abierto, de concurso relativo a la contratación de acciones promocionales de la oferta de Euskadi en Madrid, Barcelona y Santiago de Compostela en 2008. 5164

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### 1394

DECRETO 35/2008, de 4 de marzo, por el que se regula la admisión de alumnado en los Centros Públicos y Privados Concertados de Educación Infantil, Educación Primaria, Educación Secundaria Obligatoria, Bachillerato y Formación Profesional de Grado Medio y de Grado Superior, de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación, ha establecido las normas básicas de aplicación para la admisión de alumnado en los centros públicos y privados concertados. Corresponde a las Administraciones educativas regular el procedimiento y los criterios de admisión, respetando los criterios prioritarios establecidos en la Ley Orgánica anteriormente citada.

Por otra parte, la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca, en su artículo 13, garantiza el derecho de acceso a los centros docentes en el marco de la planificación que se determine. Señala, asimismo, que reglamentariamente se regulará la admisión de alumnado para los casos en los que no existan plazas suficientes en cada centro, sin que pueda existir ningún tipo de discriminación en la regulación ni en el ejercicio de la admisión.

El presente Decreto garantiza la admisión del alumnado sin más limitaciones que las que derivan de los requisitos de edad y, en su caso, de las condiciones académicas exigidas para el acceso. Sólo para el supuesto de que no existan plazas suficientes, se desarrollan los criterios de admisión previstos en la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación, y en el artículo 13 de la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca, al objeto de asegurar la igualdad de oportunidades en el acceso a la enseñanza sostenida con fondos públicos.

Dekretu hau izapidetzeko prozesuan, entzunak izan dira eragindako sektoreen ordezkaritzako organizazioak, eta Euskadiko Eskola Kontseiluak emandako irizpena jaso da.

Hori guztia dela-eta, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, hezkuntzari buruzkoak, autonomia-erkidegoei emandako baimena erabiliz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak egindako proposamenari jarraituz, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak adierazitakoarekin bat etorriz, eta gaia Jaurlaritzako Kontseiluak 2008ko martxoaren 4an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA
PRINTZIPIO OROKORRAK

*1. artikulua.*– Xedea.

Dekretu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan ikasketa hauek ematen dituzten herri-ikastetxeetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko prozesuak araudia ezartzea, honako etapa hauetan:

– Haur Hezkuntza (lehen eta bigarren zikloa).
– Lehen Hezkuntza.
– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.
– Batxilergoa.
– Erdi-mailako Lanbide Heziketa.
– Goi-mailako Lanbide Heziketa.

*2. artikulua.*– Eskolatze-bermea.

1.– Ikasle guztiek dute doako eskola-plaza bat izateko eskubidea, irakaskuntza-etapa hauetako prestakuntza eskuratzeko bermetzat:

– Haur Hezkuntzako bigarren zikloa.
– Lehen Hezkuntza.
– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.

2.– Ikasleen aitek, amek, tutoreek edo haien tutoretza edo zaintza izan dezaketen pertsona edo erakundeek eta, adin nagusikoak izan edo legez emantzipatuta badaude, ikasleek beraiek aukera dezakete zer ikastetxetan ikasi, Dekretu honen xede diren ikastetxeen eskaintzaren baitan; betiere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak egindako plangintzaren barruan eta Dekretu honek nahiz bere garapeneko arauek ezarritako baldintzak betez.

3.– Ikasleren batek plaza bat eskatzen badu Dekretu honen aplikazio-eremuko ikastetxeren batean eta eskaera horri baiezkoa emateko adina eskola-plaza badaude, onartu egin beharko zaio eskaera, baldin eta indarreko legediak ikasketak egiteko eskatzen dituen baldintzak betetzen baditu.

4.– Dekretu honetako xede den ikastetxeren batean eskainitako eskola-plazen kopurua eskatzaileena baino txikiagoa bada, Dekretu honi eta bere garapeneko

En la tramitación del presente Decreto se ha oído a las diferentes organizaciones representativas de los sectores afectados y se ha conocido el dictamen emitido por el Consejo Escolar de Euskadi.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, una vez realizados los trámites previstos en la Ley 4/2005 de 18 de febrero para la Igualdad de Mujeres y Hombres, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 4 de marzo de 2008,

DISPONGO:

CAPÍTULO I
PRINCIPIOS GENERALES

*Artículo 1.*– Objeto.

El presente Decreto tiene por objeto establecer las normas reguladoras del procedimiento de admisión del alumnado en los centros públicos y privados concertados de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que imparten las enseñanzas de las siguientes etapas:

– Educación Infantil (Primer y Segundo Ciclos).
– Educación Primaria.
– Educación Secundaria Obligatoria.
– Bachillerato.
– Formación Profesional de Grado Medio.
– Formación Profesional de Grado Superior.

*Artículo 2.*– Garantía de escolarización.

1.– Todos los alumnos y alumnas tienen derecho a un puesto escolar gratuito que les garantice la formación en las siguientes etapas de la enseñanza:

– Segundo Ciclo de la Educación Infantil.
– Educación Primaria.
– Educación Secundaria Obligatoria.

2.– Los padres, madres, tutores, tutoras u otras personas o instituciones que tengan la tutela o la guardia y custodia del alumno o alumna, y las propias alumnas o alumnos cuando sean mayores de edad o estén legalmente emancipados, podrán elegir centro docente entre la oferta de los centros objeto de este Decreto, en el marco de la planificación realizada por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación y en las condiciones establecidas por este Decreto y normativa que lo desarrolle.

3.– Cuando una alumna o alumno solicite plaza en alguno de los centros objeto de este Decreto en el que existan puestos escolares suficientes para atender la demanda, deberá ser admitido en el mismo siempre que cumpla los requisitos exigidos en la legislación vigente para cursar los estudios que solicita.

4.– Cuando el número de puestos escolares ofertados en alguno de los centros objeto de este Decreto sea inferior al número de solicitantes, la admisión se regi-

arauei erreparatuko zaie ikasleen onarpena bideratzeko.

5.– Ikastetxe batean onartua izateko, beharrezkoa izango da dagokion hezkuntza-etaparako eta dagokion mailarako indarreko legeriak eskatutako adina izatea eta, halakorik bada, baldintza akademikoak betetzea.

6.– Dekretu honetako xede diren ikastetxeek derrigorrezkoa izango dute ikasle guztien eskolatzeari eustea, harik eta derrigorrezko hezkuntza amaitzen duten arte. Horren salbuespen izango dira, batetik, ikasleak ikastetxez aldatzea, familiaren borondatez, edo, bestetik, ikastetxez aldatzea, ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko araudiak araututako egoeraren batean.

*3. artikulua.*– Irizpide diskriminatorioak eta probak ezartzeko debekua.

1.– Ezingo da irizpide diskriminatzailerik ezarri ikasleak onartzeko; hau da, ezingo da jaiotzan, arrazan, sexuan, erlijioan, iritzian edo bestelako inguruabar edo baldintza pertsonal edo sozialetan oinarritutako irizpide diskriminatzailerik onartu.

2.– Dekretu hau aplikagarri den ikastetxe eta hezkuntza-etapetan, ezingo da ikasleen onarpena baldintzatu haietan sartzeko proben edo azterketen emaitzetara; hala ere, betetzekoa izango da indarreko legediak Lanbide Heziketako Prestakuntza Zikloetara sartzeko sarbide-probei buruz arautzen duena, eskatutako baldintza akademikoak betetzen ez dituzten ikasleentzat.

*4. artikulua.*– Hezkuntza-proiektuari buruzko informazioa.

Ikastetxeek beren hezkuntza-proiektuari buruzko informazioa, eta, egoki bada, haien berezko izaerari buruzkoa eman beharko diete guraso eta tutoreei, bai eta, halakorik bada, ikastetxe horietan plaza eska dezaketen ikasle adinez nagusiei ere. Dekretu honen eraginpeko ikastetxeren batean matrikulatuz gero, ikasleek errespetatu egin beharko dute haien hezkuntza-proiektua; hala ere, bete beharrekoak izango dira indarreko legediak ikasleei eta familiei aitortzen dizkieten eskubideak.

*5. artikulua.*– Onarpen-prozesuaren aplikazioa.

1.– Hezkuntza-etapa bat baino gehiago eskaintzen duten herri-ikastetxeetan, adin txikieneko etaparen hasieran egingo da onarpenerako hasierako prozedura. Hezkuntza-etapa bat baino gehiago irakasten duten itunpeko ikastetxe pribatuetan, itunaren xede izan eta adin txikienari dagokion ikasturtearen hasieran egingo da onarpenerako hasierako prozedura.

2.– Onarpen-prozesua eginda, ikasleak bermatuta izango du ikastetxe horretan jarraitzea ikastetxeko irakaskuntza-eskaintza amaitu arte. Horren salbuespen izango dira, haien ezaugarri bereziak direla-eta, batxilergo artistikoa, erdi-mailako eta goi-mailako prestakuntza-zikloak eta hizkuntza-, arte- eta kirol-ikasketak.

rá por lo establecido en el presente Decreto y normas que lo desarrollen.

5.– Para ser admitido en un Centro docente será necesario reunir los requisitos de edad y, en su caso, los requisitos académicos exigidos por el ordenamiento jurídico vigente para la etapa y nivel al que se pretende acceder.

6.– Los centros objeto de este Decreto están obligados a mantener escolarizados a todos sus alumnos y alumnas hasta el final de la enseñanza obligatoria, salvo cambio de centro producido por voluntad familiar o por aplicación de alguno de los supuestos previstos en la normativa sobre derechos y deberes del alumnado.

*Artículo 3.*– Prohibición de criterios discriminatorios y pruebas.

1.– En la admisión del alumnado no podrán establecerse, en ningún caso, criterios discriminatorios por razón de nacimiento, raza, sexo, religión, opinión o cualquier otra condición o circunstancia personal o social.

2.– En los Centros docentes y etapas de enseñanza en los que es de aplicación este Decreto no podrá condicionarse la admisión al resultado de pruebas o exámenes de ingreso en los mismos, sin perjuicio de lo establecido en la normativa vigente sobre las pruebas de acceso a los Ciclos Formativos de Formación Profesional para aquellos alumnos y alumnas que no tengan los requisitos académicos exigidos.

*Artículo 4.*– Información sobre el proyecto educativo.

Los centros deberán informar del contenido de su proyecto educativo, y en su caso, de su carácter propio, a los padres, madres, tutores y tutoras y, en su caso, al alumnado mayor de edad que solicite plaza en dichos centros. La matriculación de un alumno o alumna en alguno de los centros objeto de este Decreto supondrá respetar su proyecto educativo, sin perjuicio de los derechos reconocidos al alumnado y a sus familias en la legislación vigente.

*Artículo 5.*– Aplicación del proceso de admisión.

1.– En los centros públicos que ofrezcan varias etapas educativas, el procedimiento inicial de admisión se realizará al comienzo de la que corresponda a la menor edad. En los centros privados concertados que impartan varias etapas educativas, el procedimiento inicial de admisión se realizará al comienzo del curso que sea objeto de concierto y que corresponda a la menor edad.

2.– Una vez realizado este proceso de admisión, la continuidad en el centro quedará garantizada hasta la finalización de las enseñanzas que imparta el centro, excepto en las enseñanzas de Bachillerato Artístico, Ciclos Formativos de Grado Medio y Superior, o enseñanzas de idiomas, artísticas y deportivas, por las especiales características de todas estas enseñanzas.

II. KAPITULUA
IKASTETXEEN ATXIKIPENA ETA ERAGIN-EREMUAK

*6. artikulua.–* Ikastetxeen atxikipena.

1.– Ikasleak onartzeko prozesuaren baitan, hezkuntzako lurralde-ordezkariek, Plangintzarako Lurralde Batzordeetan gaia aztertuta eta ikasleen guraso-elkarteen federazioei entzun ondoren, atxikipen-lotura hauek ezarriko dizkiete beren lurralde historikoetan Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendekoak diren ikastetxeei:

a) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko Haur Hezkuntzako herri-ikastetxe guztiak atxikita egongo dira Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko Lehen Hezkuntzako herri-ikastetxe batera edo batzuetara.

b) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko Lehen Hezkuntzako herri-ikastetxe guztiak atxikita egongo dira Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako herri-ikastetxe batera edo batzuetara.

c) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako herri-ikastetxe guztiak atxikita egongo dira Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko Batxilergoko herri-ikastetxe batera edo batzuetara. Atxikipen hori aldatu egin daiteke, batxilergoaren modalitateei erreparatuta.

2.– Hezkuntzako lurralde-ordezkariek itunpeko ikastetxe pribatuen arteko atxikipenak ezarriko dituzte, ikastetxe horien titularrek hala eskatzen eta, aurretiaz, ikastetxeen arteko atxikipen-hitzarmena aurkezten badute. Titulartasun bereko ikastetxeen arteko atxikipena eskatzen bada, nahikoa izango da, hitzarmenaren ordez, idatziz adieraztea atxikipen hori ezartzeko asmoa.

3.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendekoa ez den herri-ikastetxeren bateko titularrak hala eskatuko balu idatziz, hezkuntzako lurralde-ordezkariek aukera izango dute ikastetxe hori Sailaren mendeko herri-ikastetxeren batera edo batzuetara atxikitzeko.

*7. artikulua.–* Atxikitako ikastetxeetan onartuak izateko lehentasuna.

1.– Haur Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleek lehentasuna izango dute beren ikastetxea atxikirik dagoen Lehen Hezkuntzako ikastetxera edo ikastetxeetara joateko, eta bermatuta izango dute onarpena, baldin eta haietan nahikoa eskola-plazarik bada.

CAPÍTULO II
ADSCRIPCIÓN DE CENTROS Y ZONAS DE INFLUENCIA

*Artículo 6.–* Adscripción de centros.

1.– A los efectos de la admisión del alumnado, los Delegados o las Delegadas Territoriales de Educación, tras el correspondiente debate en el seno de las Comisiones Territoriales de Planificación y oídas las Federaciones de Asociaciones de padres y madres de alumnos y alumnas correspondientes, establecerán las siguientes adscripciones de los centros de su Territorio Histórico dependientes del Departamento de Educación, Universidades e Investigación:

a) Cada uno de los centros públicos de Educación Infantil dependientes del Departamento de Educación, Universidades e Investigación se adscribirá a uno o varios centros públicos de Educación Primaria dependientes del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

b) Cada uno de los centros públicos de Educación Primaria dependientes del Departamento de Educación, Universidades e Investigación se adscribirá a uno o varios centros públicos de Educación Secundaria Obligatoria dependientes del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

c) Cada uno de los centros públicos de Educación Secundaria Obligatoria dependientes del Departamento de Educación, Universidades e Investigación se adscribirá a uno o varios centros públicos de Bachillerato dependientes del Departamento de Educación, Universidades e Investigación. La adscripción podrá ser diferente para cada una de las modalidades de Bachillerato existentes.

2.– Los Delegados y Delegadas Territoriales de Educación establecerán también adscripciones entre los centros privados concertados a petición de los titulares de los mismos y previa presentación del correspondiente Convenio de adscripción entre dichos centros. Si la petición es referida a centros de la misma titularidad, se sustituirá el Convenio por una simple manifestación escrita de voluntad de establecer la adscripción.

3.– Previa solicitud por escrito del titular de algún centro público no dependiente del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, los Delegados y Delegadas Territoriales de Educación podrán establecer la adscripción de dicho centro a uno o a varios centros públicos dependientes de dicho Departamento.

*Artículo 7.–* Prioridad para la admisión en los centros adscritos.

1.– Los alumnos y alumnas de los Centros de Educación Infantil tendrán prioridad para acceder al Centro o Centros de Educación Primaria a los que esté adscrito su Centro, quedando garantizada su admisión en el mismo en caso de existir plazas suficientes.

2.– Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleek lehentasuna izango dute beren ikastetxea atxikirik dagoen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxera edo ikastetxeetara joateko, eta bermatuta izango dute onarpena, baldin eta haietan nahikoa eskola-plazarik bada.

3.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleek lehentasuna izango dute beren ikastetxea atxikirik dagoen Batxilergoko ikastetxera edo ikastetxeetara joateko, eta bermatuta izango dute onarpena, baldin eta haietan nahikoa eskola-plazarik bada. Ez dute aukera hori bermatuta izango Batxilergo artistikoa ikasteko, ikasketa-modalitate horren ezaugarri bereziak direla-eta.

4.– Musika eta dantzako ikasketa arautuak eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasketak batera ikasten dituzten ikasleek lehentasuna izango dute onartuak izateko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zehaztutako Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan; gainera, bermatuta izango dute horietara joateko aukera, baldin eta horietan nahikoa plazarik bada. Berdin jokatuko da errendimendu handiko kirol-programak egiten dituzten ikasleekin.

5.– Lehentasun-eskubide horiek erabiltzeko, ezinbestekoa izango da ikasleek berariaz adieraztea beren eskaeretan atxikitako ikastetxean onartuak izatea dela haien lehenengo aukera.

6.– Ikastetxeren batek ez balu hari atxikitako ikastetxeetatik eta lehentasunezko aukera erabiliz eskatu diren plazak hartzeko nahikoa eskola-plaza, lehentasun-hurrenkera bat ezarriko da ikasle-eskatzaileen artean, Dekretu honek eta bere garapeneko arauek finkatutako irizpideei jarraituz.

7.– Ikasleek aukera izango dute ikastetxea aukeratzeko prozesuan parte hartzeko; hala, atxikipenagatik legokiokeen ikastetxea ez den ikastetxeren batean onartuak izateko eskaera egin dezakete. Atxikipenagatik dagokion ikastetxea ez den ikastetxeren batean sartzeko aukera lehenesten badute ikasleek onarpen-eskaeran, ikasle horiek uko egingo diote atxikitako ikastetxean onartuak izateko lehentasunari.

***8. artikulua.***– Eragin-eremuak.

1.– Ikastetxeen eragin-eremuak eta eremu mugakideak zehaztuko dituzte hezkuntzako lurralde-ordezkariek; hala, bizileku guztiak ikastetxeren baten eragin-eremuan sartuko dira. Mugapen hori egiteko, Onarpena Bermatzeko Batzordeei entzun beharko zaie lehendabizi.

2.– Ikastetxeko irakaskuntza-modalitate guztietarako, eta, beharrezkoa bada, hizkuntza-eredu guztietarako zehaztuko dira eragin-eremuak eta eremu mugakideak. Eremu horietan finkatutako mapak edo zehaztapenak jendearen eskura izango dira Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetan.

2.– Los alumnos y alumnas de los Centros de Educación Primaria tendrán prioridad para acceder al Centro o Centros de Educación Secundaria Obligatoria a los que esté adscrito su Centro, quedando garantizada su admisión en el mismo en caso de existir plazas suficientes.

3.– Los alumnos y alumnas de los Centros de Educación Secundaria Obligatoria tendrán prioridad para acceder al Centro o Centros de Bachillerato a los que esté adscrito su Centro, quedando garantizada su admisión en el mismo en caso de existir plazas suficientes, excepto para cursar Bachillerato Artístico, por las especiales características de esta modalidad.

4.– Los alumnos y alumnas que cursen simultáneamente enseñanzas regladas de Música y Danza y enseñanzas de educación secundaria tendrán prioridad para ser admitidos en los centros que impartan enseñanzas de Educación Secundaria que determine el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, quedando garantizada su admisión en el mismo en caso de existir plazas suficientes. El mismo tratamiento se aplicará a los alumnos y alumnas que sigan programas deportivos de alto rendimiento.

5.– El ejercicio de las prioridades anteriores exigirá la solicitud expresa por parte de las alumnas y alumnos interesados de plaza en el centro adscrito como su primera opción.

6.– Si no existieran plazas suficientes para acoger en un centro a todos los alumnos y alumnas procedentes de los centros adscritos que hayan solicitado plaza acogiéndose a la prioridad que les corresponde, se establecerá la prelación entre estos alumnos y alumnas de acuerdo con los criterios establecidos en este Decreto y normas que lo desarrollen.

7.– Los alumnos y alumnas podrán participar en el proceso de elección de centro, solicitando su admisión en algún centro distinto de aquel o aquellos que le correspondieran por adscripción. La solicitud como primera opción de una plaza en un centro diferente al que le corresponda por adscripción, supondrá la renuncia a la prioridad en la asignación de la plaza en el centro adscrito.

***Artículo 8.***– Zonas de influencia.

1.– Los Delegados y Delegadas Territoriales de Educación, oídas las Comisiones de Garantías de admisión, delimitarán las áreas de influencia, así como las áreas limítrofes a las anteriores, de modo que cualquier domicilio quede comprendido en el área de influencia de al menos un Centro determinado.

2.– La delimitación de áreas de influencia y limítrofes se realizará para cada una de las modalidades, enseñanzas y, en su caso, modelos lingüísticos que se impartan en el centro. Los mapas o las especificaciones que establezcan estas áreas estarán a disposición del público en las correspondientes Delegaciones Territoriales de Educación.

3.– Hezkuntzako ordezkariek laguntza eska diezaiekete toki-korporazioei artikulu honetan xedatutakoa betetzeko, eta toki-korporazio horientzat derrigorrezkoa izango da laguntza hori ematea.

III. KAPITULUA
PROZEDURA

*9. artikulua.*– Onarpen-prozeduraren deialdia.

1.– Ikasleak hezkuntza-etapa bakoitzean onartzeko prozedura komuna izango da Dekretu honen eraginpeko ikastetxe guztietan, eta urtero arautuko da hura, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak emandako aginduen bidez.

2.– Eskaerak aurkezteko epea eta horiek ebaztekoak ezarriko dituzte aginduek. Gainera, agindu horiek zehaztu egingo dute, beharrezkoa bada, zer agiri aurkeztu beharko dituzten interesatuek eskaerarekin batera, onarpen-prozesuan aintzat hartuak izatea nahi dituzten irizpideak kreditatzeko. Dekretu honek araututakoa bete beharko da bide hori erabiltzeko.

3.– Etapa bakoitzean hasiera-mailetako ikasleak onartzeko urtero epe eta prozedurak prozedura batzuk ezarri ahal izango dira, eta ikasturte amaieran beste maila batzuetan hutsik gelditzen diren plazak betetzeko, berriz, beste epe eta prozedura batzuk ezarri ahal izango dira.

4.– Onarpen-prozedura informatikoak ezar ditzake Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak; hala egitekotan, berariazko aplikazio informatikoak diseinatuko ditu. Dekretu honen eraginpeko ikastetxe guztiek derrigorrean erabili beharko dituzte aplikazio informatiko horiek, onarpen-prozedura aurrera eramateko.

*10. artikulua.*– Eskaerak.

1.– Eskola-plaza bakarra eska daiteke ikasketa jakin bat egiteko. Aukera izango da eskaera horretan beste ikastetxe batzuen eskaera egiteko, lehentasunezko ordena bati jarraituz. Interesatua lehen postuan aukeratu duen ikastetxean onartua ez bada erreparatuko zaie gainerako eskaerei.

2.– Baliogabetu egingo dira aurkeztutako eskaerak, baldin eta:

a) Eskaera bat baino gehiago egin bada ikasketa jakin bat egiteko, ikastetxe berean edo ikastetxe bat baino gehiagotan.

b) Interesatuak aurkeztutako agiriak faltsuak direla edo maula egiteko asmoz erabili direla egiaztatzen bada.

c) Eskaera epez kanpo aurkeztu bada.

3.– Los Delegados y Delegadas de Educación podrán solicitar de las Corporaciones Locales la colaboración precisa para la aplicación de lo dispuesto en este artículo, estando dichas Corporaciones Locales obligadas a prestar la colaboración solicitada.

CAPÍTULO III
PROCEDIMIENTO

*Artículo 9.*– Convocatoria del procedimiento de admisión.

1.– El procedimiento de admisión del alumnado en cada etapa educativa será común para todos los centros objeto de este Decreto, y será regulado anualmente mediante las correspondientes Órdenes del Consejero o Consejera de Educación, Universidades e Investigación.

2.– En estas órdenes se establecerá el plazo de presentación de las solicitudes y el de resolución de las mismas. Asimismo, en dichas órdenes se determinará la documentación que, en su caso, deberá presentar la persona interesada junto con la solicitud para acreditar aquellos criterios que desea que le sean tenidos en cuenta en el procedimiento de admisión, de acuerdo con lo establecido en el presente Decreto.

3.– Los procedimientos y plazos que se determinen anualmente para regular la admisión del alumnado en los niveles iniciales de cada etapa educativa podrán ser diferentes de los que se establezcan para cubrir, al finalizar cada curso académico, las plazas que queden disponibles en cada centro en el resto de niveles.

4.– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación podrá establecer procedimientos de admisión informatizados, para lo que diseñará las aplicaciones informáticas correspondientes. En estos casos, todos los centros docentes objeto de este Decreto estarán obligados a realizar el procedimiento mediante las citadas aplicaciones informáticas.

*Artículo 10.*– Solicitudes.

1.– La solicitud de puesto escolar será única para unas mismas enseñanzas. En la misma podrán solicitarse otros centros, por orden de preferencia, que serán considerados posteriormente en el caso de que la persona interesada no sea admitida en el centro solicitado como primera opción.

2.– Se invalidarán las solicitudes presentadas en los casos siguientes:

a) Cuando se presente más de una solicitud para unas mismas enseñanzas, en el mismo centro o en centros diferentes.

b) Cuando se compruebe la falsedad o uso fraudulento de la documentación aportada por la persona interesada.

c) Cuando la solicitud se presente fuera de plazo.

Egoera horiek gertatzen badira, ez dira kontuan hartuko aurkeztutako eskaerak, eta Onarpena Bermatzeko Batzordeak erabakiko du ikaslearen eskolatzea.

3.– Ikastetxeek eskatzaileen zerrenda alfabetikoa argitaratu beharko dute, onarpen-prozesua arautzeko aginduek zehaztutako epean, etapa, maila eta, beharrezkoa bada, hizkuntza-ereduka. Informazio hori guztia hezkuntzako lurralde-ordezkaritzara igorriko da, arauz ezarritako epean.

Eskaera-inprimakia entregatu duten pertsonak soilik ager daitezke onartutakoen eta onartu gabekoen zerrendetan.

*11. artikulua.–* Egutegia.

1.– Dekretu honetako 9. artikuluak aipatutako aginduek epe komunak finkatuko dituzte Dekretu honen eraginpeko ikastetxe guztientzat, bai onarpen-eskaerak aurkezteko, bai prozedurako gainerako faseak gauzatzeko.

2.– Dekretu honen eraginpeko ikastetxe guztiek zorrotz bete beharko dute aurreko paragrafoan adierazitako aginduek onarpen-prozedurentzat ezarritako egutegia. Ikastetxeak bestelako prozedurak erabili edo konpromisoak hartuko balitu eskola-plazak arauz ezarritako epeak baino lehen erreserbatzeko, horiek guztiak baliogabeak izango dira ikasleak onartzeko, eta jokabide horiek ikastetxeari zehapen-espediente bat irekitzeko bide eman dezakete.

*12. artikulua.–* Prozeduraren doakotasuna.

Onarpen-prozedura doakoa izango da eskatzaileentzat.

*13. artikulua.–* Prozedura-faseetako organo eskudunak.

1.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari dagokio erabakitzea hezkuntza-etapa edo -maila bakoitzeko ikasturte eta modalitateetan onartuko den talde-kopurua eta ikasleen eta taldeen gehienezko kopurua sail horren mendeko herri-ikastetxeetan. Kopuru horiek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendekoak ez diren ikastetxeetan azalduko dituzten zenbakiak jakiteko, ikasketak eta ikaspostuak baimentzeko aginduei eta ikastetxe horien hezkuntza-itunei erreparatu beharko zaie.

2.– Onarpena Bermatzeko Batzordeak.

Onarpena bermatzeko batzorde bat eratuko da lurralde historiko bakoitzean.

Onarpena Bermatzeko Batzordeek egiteko hauek izango dituzte:

a) Beren lurralde-eremuko herri-ikastetxeetan eta itunduetan ikasleak onartzeko egiten den prozesua ikus-

En estos supuestos, no se tendrán en cuenta la solicitud o solicitudes presentadas, realizándose la escolarización por la Comisión de Garantías de admisión.

3.– En el plazo que se determine en las órdenes que regulen cada año el proceso de admisión, el centro deberá publicar el listado alfabético de personas solicitantes por etapa, nivel y, en su caso, modelo lingüístico. Asimismo, esa información se trasladará a la correspondiente Delegación Territorial de Educación en el formato y en el plazo que reglamentariamente se establezca.

Únicamente quienes hayan entregado el impreso de solicitud podrán aparecer en las listas de personas admitidas y no admitidas.

*Artículo 11.–* Calendario.

1.– En las Órdenes a las que se refiere el artículo 9 del presente Decreto, se fijarán los plazos comunes para todos los centros objeto de este Decreto para la presentación de las solicitudes de admisión y para el desarrollo de las sucesivas fases del procedimiento.

2.– El calendario de los procedimientos de admisión que se establezca por medio de las Órdenes mencionadas en el párrafo anterior, deberá ser escrupulosamente respetado por la totalidad de los centros objeto de este Decreto. Cualquier procedimiento diferente o compromiso adquirido por el centro que implique una reserva de plaza con anterioridad a los plazos reglamentariamente establecidos carecerá de efectos, y podrá dar lugar al correspondiente expediente sancionador contra el centro correspondiente.

*Artículo 12.–* Gratuidad del procedimiento.

El procedimiento de admisión será totalmente gratuito para las personas solicitantes.

*Artículo 13.–* Órganos competentes en las diferentes fases del procedimiento.

1.– Corresponde al Departamento de Educación, Universidades e Investigación determinar el número de grupos y el número máximo de alumnos y alumnas y de grupos que cada uno de los centros públicos docentes dependientes del citado Departamento puede admitir en cada uno de los cursos y modalidades de cada etapa o nivel educativo. En el caso de los centros no dependientes del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, estos parámetros vendrán determinados por lo que se establezca en las correspondientes Órdenes de autorización de enseñanzas y puestos escolares y en los correspondientes conciertos educativos.

2.– Comisiones de Garantías de admisión.

Se constituirá una Comisión Territorial de Garantías de admisión en cada uno de los Territorios Históricos.

Las Comisiones de Garantías de admisión tendrán las siguientes funciones:

a) Supervisar el proceso de admisión de alumnado en los centros públicos y privados concertados de su ám-

katzea eta prozesu hori arautzen duen arautegia betetzen dela bermatzea. Hala ere, Hezkuntzako Ikuskaritzak bere egiteko eta eskumenei eutsiko die.

b) Hezkuntzako lurralde-ordezkariei aholku ematea ikastetxeen eragin-eremuak eta eremu mugakideak zehazteko lanean.

c) Hezkuntzako lurralde-ordezkariei aholku ematea ikasleen eskolatzearekin zer egin erabakitzeko, baldin eta ikasle horiek ez badute, onarpen-prozesua igaro ondoren, plaza bat lortu lehen postuan hautatutako ikastetxean. Erabaki hori hartzeko, hutsik geratutako plazei erreparatuko zaie, eta, posible bada, eskatzaileek egindako bigarren eta hirugarren aukerak errespetatu behar dira.

d) Hezkuntzako lurralde-ordezkariei aholku ematea ikasleen eskolatzearekin zer egin erabakitzeko, baldin eta ikasle horiek eskaera bat baino gehiago egin badute edo eskatzaileak aurkeztutako agiriak faltsuak direla egiaztatzen bada.

Batzorde horiek ikastetxeetako informazioa eta dokumentazioa jasoko dute, eginkizun horiek gauzatzeko.

Hezkuntzako lurralde-ordezkariek beharrezko irizten badute, onarpena bermatzeko beste batzorde batzuk era ditzakete, geografia-eremu eta/edo -maila jakinetarako. Hala erabakiz gero, onarpena bermatzeko lurralde-batzordeek dagokion batzordearen esku utziko dituzte geografia-eremu eta/edo -maila horiei dagozkien funtzioak.

Onarpena bermatzeko batzordeak osatuko dituzte Hezkuntza-administrazioko eta tokiko administrazioko ordezkariek eta gurasoen, irakasleen eta Dekretu honetan aipatzen diren ikastetxeen ordezkariek. Dekretu honen 9. artikuluan aipatzen diren aginduetan ezarriko da nola osatu eta arautuko diren batzordeok. Erdieta goi-mailako heziketa-zikloen kasuan, lanbide-heziketako irakaskuntzen espezifikotasunak kontuan hartuta osatuko da batzordea.

3.– Dekretu honen eraginpeko herri-ikastetxeetako Ordezkaritza Organo Gorenek eta ikastetxe pribatuetako organo titularrek hartu behar dituzte ikasleen onarpenari buruzko erabakiak; betiere, legeek, Dekretu honek eta bere garapeneko arauek arautukakoa betez. Itunpeko ikastetxe pribatuetan, ikastetxeko eskola-kontseiluak parte hartuko du ikasleen onarpen-prozesuan, eta bermatu egingo du prozesu horrek bete egiten dituela hura arautzen duten arauak.

*14. artikulua.*– Plazak gorde beharra.

1.– Dekretu honen eraginpeko ikastetxe guztiek gorde egin beharko dute, aurreinskripzio- eta matrikulazio-epea amaitu arte, hezkuntzako lurralde-ordezka-

bito territorial y garantizar el cumplimiento de la normativa que lo regula, sin perjuicio de las funciones y competencias de la Inspección de Educación.

b) Asesorar a los Delegados o Delegadas Territoriales de Educación en la delimitación de las áreas de influencia y de las áreas limítrofes de cada centro.

c) Asesorar a los Delegados o Delegadas Territoriales de Educación en la decisión sobre la escolarización de los alumnos y alumnas que no hayan obtenido plaza por medio del correspondiente proceso de admisión en el centro solicitado en primer lugar. Para ello, deberán tener en cuenta las plazas que hayan quedado vacantes y, cuando sea posible atenderlas, las segundas y terceras opciones de las personas solicitantes.

d) Asesorar a los Delegados o Delegadas Territoriales de Educación en la decisión sobre la escolarización de los alumnos y alumnas que hayan presentado más de una solicitud y de aquellos y aquellas en cuya solicitud se compruebe falsedad en la documentación aportada por la persona solicitante.

Estas Comisiones recibirán de los centros toda la información y documentación adecuada para el ejercicio de estas funciones.

En aquellos casos en los que los Delegados o Delegadas Territoriales de Educación lo consideren necesario podrán constituir otras Comisiones de Garantías de admisión referidas a un nivel y/o a un ámbito geográfico concreto. En estos casos, las Comisiones Territoriales de Garantías de admisión delegarán la aplicación de sus funciones en esos niveles y/o ámbitos geográficos en la Comisión correspondiente.

Las Comisiones de Garantías de admisión estarán integradas por representantes de la Administración educativa, de la Administración local, de los padres y madres, del profesorado y de los centros objeto de este Decreto. La composición y la regulación de estas Comisiones se establecerá en las Órdenes a las que se refiere el artículo 9 del presente Decreto. En el caso de los ciclos formativos de grado medio y grado superior, la composición de la Comisión se hará teniendo en cuenta las especificidades propias de las enseñanzas de formación profesional.

3.– Las decisiones sobre la admisión del alumnado en los centros objeto de este Decreto corresponden a los Órganos Máximos de Representación de los centros públicos o a los titulares de los centros privados, con sujeción a lo establecido en las Leyes, en este Decreto y en las disposiciones que lo desarrollen. En los centros privados concertados, el Consejo Escolar del centro participará en el proceso de admisión del alumnado, garantizando la sujeción del proceso a las normas que lo regulen.

***Artículo 14.***– Reserva de plazas.

1.– Todos los centros docentes incluidos en el ámbito de aplicación de este Decreto deberán reservar, hasta el final del periodo de preinscripción y matrícula, las

riak zehaztutako plaza-kopurua, berariazko hezkuntza-laguntza behar duten ikasleak eskolatzeko.

2.– Hezkuntzako lurralde-ordezkariek zehaztuko dute, onarpen-prozesuari ekin baino lehen, zenbat plaza gorde beharko dituen ikastetxe bakoitzak ikasle horientzat, ikasturte eta hezkuntza-etapa bakoitzean. Beharrezkoa ikusten bada, berariaz ezartzen diren organoen aholkuak jasoko dituzte lurralde-ordezkariek kopuru horiek zehazteko. Ikasle horiek herri-ikastetxeen eta itunpeko ikastetxe pribatuen artean modu orekatuan banatuko dira, haiek hezkuntza-sisteman integratzeko baldintza egokiak sortzeko.

*15. artikulua.–* Behin-behineko zerrendak.

